

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 678/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Berritzea Arabako Foru Aldundiak Transferentzien Bitariko Batzordean duen ordezkaritza

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da Transferentzien Bitariko Batzordean Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkaritza berritzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Blanca de la Peña Bernal, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua, izendatzea Arabako Foru Aldundiaren titular gisa Transferentzien Bitariko Batzordean (Foru Administrazioaren parte hartzea duten erakundeen erregistroko 2. zenbakia), Javier Hurtado Dominguez kargutik kentzea aldi berean.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunizazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN